

Prest!



BERBETAN: **BEGOÑA ITURRIZA** SANTUTXUKO BERTSO ESKOLAKO PARTAIDE OHIA

ERREPORTAJEA: 28 URTEZ ERRALDOIEN KULTURA ONDAREAREN ALDE BARKUA: NEGUKO SOLSTIZIOA, ZAHARRA BERRI



9-250-251-252-253



## Sustatzailea

**Verbaizu**  
— euskara elkarte —

## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**  
urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

bilbokoaldizkariak@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

# aurkibidea

	Jon Zubieta - Itsaso Larramendi Elexgaray		<b>Iritzia</b>	4	
	Oriol De Quintana		<b>Gurera etorriak</b>	5	
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> 28 urtez Erraldioen kultura ondarearen alde				
	<i>Ondalan Erraldioen Konpartsak ibilbide luzea darama Deustualdeko zein Bizkaiko beste hainbat herrietako jaietan Erraldioen ekitaldiak egiten. Bada, aurreko alean aipatu genuen Igor Diaz sortzailearen ibilbidearen eta Konpartsaren xedearen inguruan gehiago jakiteko aukera aproposa da hilabete honetako erreportajea.</i>			6	
		Deustuko Ikastola		<b>Eskolak</b>	10
	Bilboko Udalaren ahaleginak Deustua bereganatzeko: 1821eko anexio saiakera		<b>Behin batean</b>	12	
	Konponbiderako giltzak		<b>Artikulua</b>	14	
<b>b</b>	<b>berbetan</b> BEGOÑA ITURRIZArekin				
	<i>Begoña Iturrizak ibilbide luzea egin du Bilboko eta Bizkaiko bertsolaritzaren zein euskalgintzaren alde. Joan den abenduaren 16an, 2023ko Bizkaiko Bertolari Txapelketaren irabazleari, Nerea Ibarzabali, txapela janzteko ohorea eman zion Bertsozale Elkarteak. Egun Deustualdeko Berbalagun Mintzapraktika taldeko kidea da.</i>			16	
	Deustuko Zubia (1937)		<b>Irudiak berbetan</b>	21	
	<b>IRAKURLEEN TXOKOA</b> <i>Bekatua</i> hizpide				
	<b>DEUSTUKO JAIK</b> Neguko Solstizioa, zaharra berri				
	<b>NUTRIZIOA</b> Ainhoa Maiztegi				
	<b>KULTUR TXOTX</b> Patri Muñoz, Maddi Artetxe eta June Sarrionandia-Ibarra				
			<b>barkua bete herba</b>	24	

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Axular Arostegi

**Erredakzioa:** Xabier Badiola, Asier Cobos, Nerea Cubillo, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Itxaso Sainz, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Patri Muñoz, Danel Lauzirika, Ainhoa Maiztegi, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800



Jon Zubieta  
Sanitarra

## *Astelehen urdinak eta bizitza grisak*

Azken egunetan ez dira gutxi izan urtero legez “blue monday” edo “astelehen goibela” kontzeptuari buruz argitaratutako albiste eta artikulua, ustez urte osoko egun triste eta etsigarriena.

Azken hamarkadetan hedatutako terminoa den arren, eta bere izaera publizitario eta komertziala alde batera utzita, esan daiteke datetan nahiko modu egokian dagoela aukeratuta, urtarrileko hirugarren eguna, alegia. Izan ere, Gabonetako ospakizunen eta oporren ajeak, ikasleen azterketa garaiaren egonezinak, neguko lehen asteetako eguraldi kaskarrak eta beste hainbat faktoreek malenkoniarako klima ezin hobea sortzen dute, edo hori da, behintzat, azaltzen digutena. Modu horretan, aipatutako


eguna “egoera normal” batera itzultzeko estualdi hutsa da, igaro beharreko egoera iragankorra.

Edonola ere, gehiegitan egoera hori iraunkor bihurtzen da, modu batean edo bestean ohitzen bagara ere. Soilik momentu edo garai zehatzetan izaten gara gai ukatzen zaigun bestelako errealitate baten zantzuak sumatzeko, benetan zoriontsu sentitzeko. Eta horien bueltan beti izaten ditugu “blue monday” kontrolatuak, pixkanaka errutinazko egun grisak bihurtzen direnak.

Ez dezagun gure egunerokotasun grisa ontzat hartu eta egin dezagun beste errealitate baten alde, programatutako egun goibelik gabekoa.



Itsaso Larramendi Elexgaray  
Hiriaz eta beste



## *Cenita piscina*

Astearte eta ostegunero biltzen gara, arropa gutxi soinean, asteke kirol dosi erregularrari elkarrekin ekiteko prest. Egunaren azken tarte igerian ematen dugu, uraren temperaturaz kexuka sarri. Igeriketa teknikak hobetzeko bideoak partekatzen ditugu; negua eta udara bueltan afaritxoa egiten dugu; ez dugu inongo lasterketan konpetitzeko anbizioarik.

Kae Tempest-ek errezzitatuko bagintu halako zerbait esan lezake: “hortxe daude jainkoak beren bainujantzi gastatuekin, 25 metroko igerilekuan bueltaka”.

Ez dago inolako distira nahirik kiroldegi publikoan 45 minutuko klaseak hartzeko hautu honetan, eta horregatik beragatik disfrutatzen dut horrenbeste. Beste batzuentzako uzten dut marka pertsonalak neurtzeko eta gaintzeko lana, eta kirol apur bat egiteak ematen duen neke atsegin horrekin geratzen naiz ni. Nire adin bikoitza zein erdia duten auzokideekin zenbait berba eta barre trukatzearrekin, eta iluntzean, aurretik nabaritzen ez nituen gorputz atalak igartzearrekin.

Ai, pretentsiorik gabeko afizio gehiago izango bagenitu!





## Oriol De Quintana

**Jatorria:** Girona

**Bizitokia:** Deustu

**Lanbidea:** ingeniaria



### Zergatik erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea bizitzera?

Arrazoi nagusia sektore eolikoan sartzeko nuen gogoia izan zela esango nuke; izan ere, esparru horrekin zerikusia zuen lan eskaintza bat atera zitzaidan hemen Bilbon. Baina Kataluniatik irte-teko irrikaz ere banangoen, hala egin dudan guztietan asko gozatu baitut; gainera, Euskal Herria beti izan da denboraldi bat bizitzeko tentazioa sortzen zidan herria.

### Zure egungo egoera bat dator hona etorri aurretik espero zenuenarekin?

Espero nuena baino hobea. Bai lan mailan, baita maila pertsonalean ere oso pozik nago hemen. Ez nuen espero hain azkar integratzerik.

### Urte erdi baino gehiago pasa da hona bizitzera etorri zinenetik. Bada ezer oraindik ohitzera iritsi ez zarenik?

Eguraldi txarrera, batez ere kontrastea ikusten dudanean Girona-jaioa joaten naizenean. Baina, egia esan, kontatu zidatenaren arabera, okerrago espero nuen. Patata-tortilla zeinen ona dagoen ere ez naiz ohitzen, sinestezina da.

### Zure hemengo bizimodua eta Gironakoa oso desberdinak direla uste duzu?

Gironan ez nuke hemen adina jango, hori ziur. Txantxak alde batera, antzekotasun handiak daude. Erasmuseko lagun batek bere kuadrillako lagunak aurkeztu zizkidan. Gehienak hemengoak dira, Deustukoak, eta guztiek taldeko beste bat bezala tratatu naute, eta hori izugarri eskertzen diet, etxean bezala sentiarazi nautelako. Beraz, asteburuetan beti izaten dut planen bat.

### Euskara ikasten ari zarela jakin dugu. Zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Arrazoi ezberdinengatik egia esan. Garrantzitsuena honakoa litzatekeela suposatzen dut: norbait Kataluniarra etorriko balitz, katalana ikasteko ahalegina egitea eskertuko nukeela. Min ematen dit norbaitek bere hizkuntza aldatu behar izateak nigatik. Azkenean, gaztelaniaren etengabeko presioan dauden hizkuntzak dira, eta zaintzen ez badira, desagertzeko arriskua dute. Baina, aldi berean, hastea erabaki nuen, oso hizkuntza polita eta interesgarria iruditzen zaidalako, asteen zehar hizkuntza hori ikastera mo-

tibatzen nauena, eta funtsezkoa dena euskal gizartean integratu nahi badut.

### Zenbatero itzuli ohi zara Gironara?

Lehen hilabete hauetan sarritan joan izan naiz. Uda, Gabonak, Gironako jaiak eta ezkontzaren bat... ia bi hilean behin. Baina asmoa gutxiago joatea da, urtean pare bat aldiz. Orain nire bizitza hemen dago.

### Aurretik egonda zeunden Euskal Herrian? Zer da orain arte gehien gustatu zaizuna?

Bai, noizbait bidaiaren batean, batez ere Gipuzkoan, eta Donostiako jaietan. Festa giroa gustatzen zait. Ikusten dut aktibismo handia dagoela ekitaldiak, hitzaldiak, jaiak, gazte eguna... antolatzeke orduan. Hori oso garrantzitsua da, leku batean asko baloratzen dudanean zeozer da eta, zoritxarrez, Katalunian gero eta zailagoa da ikustea.

### Epe luzerako geratzeko asmorik duzu?

Egia esan, ez dago jakiterik, asko mugitzea gustatzen zait. Baina oraingoz oso gustura nago hemen eta urte batzuk geratzea da asmoa.



Igor Diaz egindako omenaldia abenduaren 16an.

## 28 URTEZ ERRALDOIEN KULTURA ONDAREAREN ALDE

*Ondalan Erraldoien Konpartsak ibilbide luzea darama Deustualdeko zein Bizkaiko beste hainbat herrietako jaietan Erraldoien ekitaldiak egiten. Bada, aurreko alean aipatu genuen Igor Diaz sortzailearen ibilbidearen eta Konpartsaren xedearen inguruan gehiago jakiteko aukera aproposa da hilabete honetako erreportajea.*

**Testua:** Axular Arostegi

**Argazkiak:** Ondalan Konpartsa

1996an sortu zenetik, Deustualdeko jai-giroaren ikur nagusietako bat izan da Ondalan Konpartsa. Alabaina, ate joka ditugun Deustuko inauterietan, esaterako, ekitaldia eskainiko dute otsailaren 4ean, igandea, 11:30etan. Jakina denez, Erraldoi eta Kilikien jai tradizioa euskal kultura tradizionalaren zutabeetako bat da, eta hori indartzea da, hain zuzen, Ondalaren helburu nagusia.

“Konpartsa sortu aurretik, Bilbo mailan baze- goen konpartsa bat Erraldoien ekitaldiak egiten zituena, Mairuek izenekoa. Bertako kide gehienak Deustu eta San Inaziokoak zirenez, erabaki genuen Deustualdean ere Erraldoien konpartsa bat sortzea. 1996ko martxoaren 24an egin

genuen aurkezpen ofiziala, Deustuko Jaietan” gogoratzen du Jabi Ortega Ondalane-ko kideak.

28 urteko ibilbide luze honetan zehar Konpartsaren tamaina Erraldoi eta konpartsakide aldetik asko aldatu den arren, euskal ondare horren presentzia eguneko jai-giroan mantentzeko apostua bere horretan dirau. Zifrei erreparatuta, Konpartsa sortu zenean zituzten lau Erraldoietatik gaur egun dituen 18tara igaro da. Ekintzetan parte hartzen duten kide kopuruari dagokionez, ordea, lehendabiziko batzarrean zortzi kide bildu ziren eta egun 60 norbanako inguruk osatzen dute Konpartsa. Alde horretatik, lau talde txikietan banatzen dituzte Erraldoiak: Nagusiak (helduek erabiltzen dituztenak), Mamutxak (16-





17 urte bitartekoentzako), Konpartsa Txikia (11-12 urte bitartekoentzako) eta Konpartsa Txikiena (6 urte baino gehiago duten umeentzako).

Gauzak horrela, Ondalari buruz hitz egiteko ezin gara Deustualdean duen presentzia aipatzera mugatu, Bizkaiko Erraldoien sustapenean aparteko garrantzia izan baitu. Era berean, Ondalaren ibilbideari buruz ezin da hitz egin Igor Diaz aipatu gabe, joan den hilabetean zendu eta hilaren 16an omenaldia egin ziotena.

## Urte osoan presente

Konpartsaren izena Nafarroako nekazal eremutik dator, lurrari edo egoera bati buelta emateko ekintzari erreferentzia egiten diona. Bada, horixe izan zen, hain zuzen, eragilearen abiapuntua, Bizkaian ia desagertuta zegoen Erraldoien kultura ondarea berpizteko gogoia. Gainera, konpartsakideen jarduna, beste zenbait helbururen artean, egunean zeharreko jaiak sustatzeko asmoan oinarritzen da. Ortegaren hitzetan, “1995ean gaua zen nagusi jai guztietan, egunez ez zegoen ezer. Beraz, hor kokatzen da gure herriarekiko lotura”.

Ondalaren ekintzak erabat lotuta daude jai herrikoiekin. 2023an, esaterako, 42 ekitaldi egin zituzten Euskal Herriko herri ezberdinetan, gehiengoa herrietako jaietan izanik. Hala ere, urte osoan zehar hamaika herri zein auzotara mugitzen diren arren, ez dute, inolaz ere, Deustualdearekiko atxikimendua galdu. Azken horren adierazle da, besteak beste, Konpartsaren aurkezpena Deustuko Jai batzuetan egin izana edota urtero Deustualdeko auzoetako jai eta inauterietan egiten dituzten ekitaldiak. Horretaz gain, aipatzekoa da, nola ez, Aste Nagusiko edizio bakoitzean egiten duten saioa.



2008an II. Bizkaiko Erraldoien egunean parte hartu zuen Ondalarek.



Bestalde, Ondalenen helburuak jai-giroarekin ez ezik, euskal kulturarekin ere zerikusia duten heinean, euskara sustatzeko ekintza ugaritan parte hartzen dute. Horren erakusle izango da, adibidez, Korrika eta Ibilaldia bezalako ekimenen parte ere izan direla.

Belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, Konpartsak urteak daramatza gazteentzako zuzenduta dauden ekitaldiak prestatzen; batik bat, Erraldioen tradizioa belaunaldi berriei hurbiltzeko asmoz. Azken lan horren adierazle da, inongo zalantzarik gabe, lehen aipatutako Konpartsak kideen aldetik bizi izan duen gorakada.

### Erraldioen beste konpartsa batzuekin harremana

Orain arte Ondalanez aurrera eramandako ekitaldiak eta Deustualdearekin duen harremana landu diren arren, Bizkaiko beste hainbat Erraldioen konpartsen sorreran hartu du parte. "Gure Konpartsa handituz joan den heinean, beste konpartsa batzuk sortzen lagundu du. Besteak beste, Barakaldon, Orduñan, Amurrión, Bermeón..." gogoratzen du Ortegak.

Erraldioen ondare kulturala hedatzen laguntzeak etorkizunean herri horietan On-



San Inazioko jaietan.

dalaren presentzia gutxiagotuko zuela pentsatzera eraman lezake. Errealitatea, ordea, guztiz bestelakoa izan da. Konpartsa sortu zutenetik, badira urtero errepikatzen dituzten herrietako emanaldiak. Era horretan, beste herri horietan egun Erraldioen Konpartsa bat existitzen den arren, Ondalanez urtean zehar egiten dituen emanaldi kopurua igo egin da.

Jardun hori Deustualdetik kanpo eraman nahiak tankerako eragileekin harreman ona izatera eraman du. Bilkuren antolakuntzan parte hartzen dute. Hain zuzen ere, nahiz eta gaur egun ez diren edizio ge-



2023ko Deustuko Jaietan egindako emanaldia.



2022ko Deustuko Inauterietan.

hiago egiten, zenbait urtez, adibidez, “Bizkaiko Erraldioen eguna” bezalako ekimenetan parte hartu dute. Gaur egun, berriz, Aste Nagusiko ekitaldia antolatzen dute, Bizkaian egiten den gisa horretako bilkurarik handiena, alegia.

### Igor Diazen herentzia

Aipatu bezala, 2023ko abendua hilabete gogorra izan zen Deustualdeko Erraldioen konpartsa-entzako. Izan ere, eragilearen sortzailetako bat izandako Igor Diaz zendu zen eta haren ibilbidea omentzeko ekitaldia antolatu zuten joan den abenduaren 16an, Levante Plazan.

Ekitaldian, ez zen soilik Diazek konpartsan egindako ibilbidea omendu nahi izan, baita bere bizitzan zehar esparru desberdinetan aurrera eraman zuen militantzia ere. “Igorren bizitza Ondalari lotuta egon da azkeneko 28 urteetan. Baina lehenago, eta baita bitartean ere, gauza piloa egin zituen. Sozialki, sindikalki eta politikoki 14 urterekin militatzen hasi zen” gogoan du Ortegak.

Ikusmen-gaitasuna modu nabarmenean baldintzatzen zion gaitz baten ondorioz, Diazek ez zuen lanbiderik izan bere bizitzako azken boladan. Alde horretatik, Iker Ramos konpartsa-

ko kideak oso presente du Diazek Ondalari eskainitakoa: “Mundu guztiak lan egiten du eta Igorrek, aldiz, lan batean egon beharrean, Ondalari hartu zuen bere familia edo etxea bezala. Hala, bere egunerokotasunaren gehiengo zatia konpartsaren zereginekin betetzen zuen, besteak beste: kudeaketa, erraldoiak konpondu, fakturak...”.

Etorkizunera begira, Ondalari kideak kontziente dira orain arte Diazen esku zeuden ardurak guztiak euren artean banatzea dagokiela momentu honetan. Edozelan ere, oso argi dute hark Konpartsaren alde eskainitako esfortzu eta izerdi guztia proiektua aurrera eramateko balioko duela.



Igor Diaz egindako omenaldian.



# BITARTEKARITZA PROGRAMA

*2023-2024 ikasturte hasieran, bizikidetza egoera hobetzeko asmoz, Bitartekaritza programan sartu zen Deustuko ikastola.*

**Testua eta argazkiak:** Deustuko Ikastola

2023-2024 ikasturte hasieran, bizikidetza egoera hobetzeko asmoz, Bitartekaritza programan sartu zen Deustuko ikastola.

Guztiok hartu behar dugu parte Ikastolako bizikidetza hobetzen. Egunerokotasunean normala da gure artean arazoak sortzea: gaizki-ulertuak, mespretxuak, irainak, ezizenak, balorazio mingarriak, haserrealdiak, borrokaldiak,...

Batzuetan, arazoan aurrean, BITARTEKARI bat egotea komeni izaten da. Eta horretan datza Bitartekaritza programa, hain zuzen, arazo baten aurrean, partaide diren ikaskideez gain, bitartekari funtzioa izango duten ikasleak konponbideak bilatzen laguntzea. Prozesu horretan, maila bakoitzeko, lauzpabost ikasle BITARTEKARI lanetan arituko dira (aurretik 16 orduko prestakuntza jaso eta gero).

## JASOTAKO FORMAKUNTZA:

- Iraila-Urriaren irakasle talde motorrak aurrez aurreko prestakuntza-saioa jaso zuten. Klaustroak ere formakuntza jaso zuten gai horren inguruan.
- Ondoren, lan horretarako aukeratutako ikasleen formakuntzak hasi ziren: azaroan 16 orduko formakuntza intentsiboa jaso zuten, lau egunetan, 9:00etatik 13:00etara.



DBHko bitartekariak.





LHko bitartekariak.

## ZER EGINGO DUTE?

LHko ikasle bitartekariak zer ikasi duten galdetzerakoan, hauxe da erantzun dutena:

- Parafraseatzea.
- Arazoak/gatazkak konpontzea; gatazkak nola kudeatu etorkizunean argi izatea.
- Pazientzia lantzea.

Berdinen artean gatazkak konpontzen saiatuko gara (kasu zailak irakasleen esku gertatuko dira: bulling,...)

- Hondatu diren adiskidetzak
- Gaizki ulertzeak
- Zurrumurruek
- Zirikatzeak...

## NOLA EGINGO DUTE LAN?

DBHko ikasleek era honetan erantzun dute:

- Asertiboa izatea.
- Gatazkak hobeto konpontzen ikastea; gatazkak lasai konpondu ahal direla jakitea.
- Gatazkaren faseak ezagutzea.
- Arazoei ondo erantzuten ikastea.

DBHn 12 eta LHn 16 ikasle dira. Bikoteka egingo dute lan eta beti beren adineko ikasleekin edota gazteagoekin arituko dira.

Inplikaturako ikasleekin bilerak deitu eta akordioetara heltzen saiatuko dira. Bileretan esaten den guztia konfidentziala izango da. Ikasleak jada, lanean hasteko prest ditugu eta, horretarako, kasuak behar dituzte: ikas-kideek aurkeztu behar dituzte kasuak (ikusitakoak, bizi izandakoak, entzundakoak,...).


Piloa gozatu dituzte trebakuntzarako erabilitako 16 ordu horiek, rol play-ak egiterakoan, batez ere. Benetan disfrutatzen dute Geuz elkarteko monitorearekin; ondo pasatu eta ikasi egin dute aldi berean.

Denon artean lagundu dezakegulako. Beraz, ez lotsarik izan eta bitartekariengana hurbildu (aurrez-aurre zein deribazio bideak erabilia: posta, emaila,...).



# BILBOKO UDALAREN AHALEGINAK DEUSTUA BEREGANATZEKO: 1821EKO ANEXIO SAIAKERA

*Lege Zaharrean Bilbok bereak eta bi egin zituen bere jurisdikzioa Diego Lopitz Harokoak emandako fundazio-agiriko mugetaraino eramaten. Alferrik. Eta Espainiak foruak kendu zituenean, laster ekin zion albo-herrien anexioa lortzeari. Orain dela berrehun urte egin zuen lehenengo saiakera (1821), baina mende bat behar izan zuen Deusturen anexioa gauzatu zuen arte (1924).*



Testua: Hektor Ortega

Bilbo hiribildu gisa eratzeko fundazio-agirietan, Diego Lopitz Harokoak (1300) eta Maria Díaz Harokoak (1310) eremu zabala aitortu zioten. Gaur egungo Bilboko udalerrria, gutxi gorabehera. Hala ere, garai hartako hiribilduei kosta egin zitzairen fundazio-agirietako mugei eustea, hirigunetik (harriz inguratutako eremutik) kanpo beste komunitate batzuk eratu zirelako elizate edo kontzeju gisa. Bermeok, esate baterako, bere esparru zabalarari eutsi zion, baina Portugaletek edo Lekeitiok, adibidez, ezin izan zuten. Ezta Bilbok ere. 1500.

urtean, hamaika auziren ostean, Bilbok azalera txiki-txikia zuen, Zazpi Kaleetako eremua besterik ez, Buia eta Zeberitxa aldeko baserriekin. Begoña, Abando eta Deustu elizate gisa antolatuta ziren, alegia, "kale" edo "hirigune" bako herri, batez ere baserriz osatua.

XVI eta XVIII. mendeetan zehar, Bilbok beste bide bati ekin zion: hiribilduko alkateak, epaile zen heinean, jurisdikzioa eduki zezala Begoña, Abando eta Deustun. Horrek ere auzi-mauzi luze eta

mardulak eragin zituen, baita istilu eta iskanbila ederrak ere hiru elizateotan. Azkenean, bilbotar kargudunak jurisdikzio zabala lortu zuen Abandon eta Deustun, baina Begoñan ez. Hortik zetozen, adibidez, Done Peri (San Pedro) egunean Bilboko alkateak Deustura egin ohi zuen jurisdikzio-bisita mingarria.

### **Madriren eta Diputazioan**

Bisitak bisita, Lege Zahararren garaian Bilbok ezin izan zituen albo-herriok irentsi. Foruak desagertu zirenean ikusi zuen hiribilduak bere asmoak gauzatzeko bidea zabalik. Lehenengo ahalegina 1820-23 bitartean egin zuen, foruen ordez Espainiako Konstituzioa Bizkaian indarrean egon zenean. Orduan Espainiako Kongresuari eskatu zion Bilboko Udalak, Jose Maria Murga alkatea buru, Abando, Begoña eta Deustuaren anexioa.

Idazki hartan anexioak gauzatzeko bere arrazoiak eman zituen Bilbok (historikoak, osasun arlokoak, merkataritzaren beharrezanek...). Baina eskabide hura hara heldu baino lehen entzun zituzten Madriren Begoñako Udalaren kexak, Bilbok zerabil-tzan planak lau haizetara zabaltzen eta gaitzesten. Guk dakigula, behinik behin, Madriko bideak ez zuen fruiturik ekarri.

Bilboko udal kargudunek beste bide batetik jo zuten. Idazkiak Bizkaiko Diputazio Probintzialari igorri zizkieten. Lehenengoan, 1821eko abenduaren 6an, Bilbok ez zuen hiru albo-herrion anexioa eskatu, baizik eta “el aumento de su jurisdicción hasta dos mil varas en toda su circunferencia”. Alegia, Bilboko mugei 1.676 metro gehitzea norabide guztietan. Begoñari (Atxuri, Zabalbide, Begoñaibarra, Uribarri...) eta Aban-

dori (Bilbo Zaharra, Albia...) haginkada mami-tua jo behar zien Bilbok. Deustua zen kalterik gutxien jaso behar zuen herria, Bilbotik urrutiago zegoelako.

Zer esanik ez, hiru elizateok ezetz erantzun zuten. Baina ez zuten arin egin. Patxadaz egin zuten: Begoñak 1822ko martxoan, Abandok maiatzean, Deustuk abuztuan. Bilboko Udala kexu azaldu zen, luzaroan eduki zutelako zain... eta geldirik. Izan ere, denbora bere asmoen kontra zihoan. 1822ko azaroan beste idazki bat aurkeztu zuen hiru albo-herrion erabateko anexioa edo, gutxienez, fundazio-agirietako mugeta itzultzeko eskatuz. Baina alferrik. 1822ko maiatzetik Bizkaia gerra giroan zegoen eta 1823ko apirilean Konstituzioa kendu eta foruak atzera be indarrean jarri zituzten.

Hor agortu zen lehenengo anexio saiakera. Hala ere, Bilbok ez zuen etsi. Hurrengo aukera gerra karlistarekin batera agertu zitzaion. Liberalen gotorleku bihurtuta, 1834 eta 1835ean gestioak berriro zituen hiribilduak hiru errepublikak bere-gana zitzaion. Orduan ere, ahalegin ustela. Baina, 1823an ez bezala, gerra horrek foruen galera (partziala lehenengotan, erabatekoa bigarren karlistadaren ostean, 1876tik aurrera alegia) ekarri zuen. Eta atea parez pare zabaldu zitzaion Bilboren anexio gurariei. Lehenengo, 1870ean, 1821eko asmoa gauzatu zuen, Begoñari eta Abandori eremu zabalak kenduta (Atxuri, Begoñaibarra, Bilbo Zaharra, Albia...). 1890ean Abando osoaz jabetu zen Bilbo. Eta 1924an, Begoña eta Deustua lortu zituen, begoñarren eta deustuarren borondatearen aurka. Azken horretaz luze eta zabal idatziko dugu 2024 honetan.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





**Testua:** Beñat Lopez de Alda, Matxintxu-Larrako AEK

Harro herri. Herria harro, herriaz harro. Harro gutaz, euskaraz. Badator 23. Korrika! Martxoaren 14tik 24ra Euskal Herri osoa euskaraz eta euskararen alde gurutzatuko dugu berriz ere. Gure harrotasunaren erakusgarri, harro garenaz, izan nahi dugunaz. Irunetik Baionarat abiatuko da aurtengo edizioa, 2746 km egingo ditugu tipi-tapa euripean zein eguzkitan, barre nahiz neke, ilusioz beterik, eta lotsa alde batera utzita. Oraingoan ere helburua argia da: gure hizkuntza bizi-bizirik dagoela harro erakustea eta euskara sustatzen jarraitzeko dirua lortzea.

Aurtengoan ere Deustualdetik igaroko da. Aurreikusitakoaren arabera, martxoaren 21ean arratsaldeko 18:37etan, zehazki, Deustura iritsiko da aurtengo Korrika! Ugasko Bidea kaletik. Ondoren, Ramón y Cajaletik pasa eta gero, Agirre Lehendakariaren Etorbidetik pasako da, jarraian Enekuri Etorbidetik igotzeko. Bertatik, Ibarrekolandara iritsiko da Orixekalearen zati nagusia zeharkatuta. Azkenik, behin San Inaziora iritsita, Agirre Lehendakariaren Etorbide osoan zehar jarraituko du ibilbidea, beste behin ere, Deustuko Zubia igarota, Abandora iristeko 19:20 inguruan.

AEK-k antolaturiko egitasmo honek laguntzaile eta laguntza oro behar ditu martxan jartzeko. Hau da, guztion partaidetza eta elkarlana

ezinbestekoak dira Korrikak aurrera egin dezan eta Euskal Herriko kale eta zoko guztiak euskaraz busti ditzagun. Euskararen normalizazioan eta hedapenean pauso bat gehiago emateari funtsezkoa deritzogu; erabilerak behera egin duen garaiotan, eta gure hizkuntzaren kontrako hainbeste oldarraldi jasan ostean, etorkizun euskaldun baten aldeko hautua argi utzi nahi dugu 23. aldiz. Euskaldun sentitzeko lotsa eta oztopo barik, harrotasunez; akatsak egiteko beldur gabe, normaltasunez; euskaraz aritzeko gune eta sare gehiago sortuta.

23. Korrikan, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu nahi dugu, edo, zehazki, baxoa eta brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak. Azterketak Euskaraz kolektiboa gazteek osatua da, guraso zein irakasleak bide-lagun dituztelarik gatazkan. Euskararen ekin-tzaile dira; haiek dira protagonista, eta, haien bidez, 35 urtean hainbat belaunaldiren lana aitortzeko aukera dugu.

Beraz, has gaitezen kaleak eta auzoak giro-tzen! Eman diezaigun euskarari merezitako bultzada! Anima zaitetze auzo, herri, hiri edota eskualdeetan egingo diren ekintzetan parte hartzera!

**GORA KORRIKA!**



# KONPONBIDERAKO GILTZAK

Testua: Sare Deustu

Bi hilabete igaro dira Gernikan “Konponbiderako giltza” manifestua aurkeztu genuenetik. Ez dira gutxi izan ordutik hona jasotako atxikimendu eta ekarpenak eta oraindik ere giltza gehiago izatea da gure helburua, giltza gu geu izan behar baikara. Konponbiderako Giltza. Etxerako Giltza.

Ateak zabaltzen gabiltza, beste ate batzuk betiko zarratu ahal izateko.

Urteetan itxita izan diren ate ugari zabaltzeko bidea izan gara. Gutako bakoitzak, bere txikitasunetik, emandako urrats txiki bakoitza bide egiteko bide izan delako.

Urruntze politika amaituta lehen gabonak izan ditugula esan genezake, baina oraindik, ordea, behin eta berriz euskal presoek etxerako bidea itxita dutela salatzea dagokigu. Eta horretan gabiltza. Salbuespenezko legediek eta salbuespenezko epaitegiek giltzarrapo izaten jarraitzen dute, baina bidean aurrera egiteko prest gaude. Urratsak ematen jarraitzeko unea da, konponbidearen eta benetako bake baten aldeko konpromisoa erakutsiz. Salbuespena lege den bitartean, oraindik, giltza ugari astindu behar ditugulako, hasitako pausoei jarraiki, atariraino bide egiteko unea da. Joan den urtarrilaren 13an ia 70.000 giltza batu ginen Bilboko kaleetan Sarek antolatzen duen urteroko manifestazio nazionalan. Horrek erakusten du, urtez urte, presoan aferaren aldeko aldarria indartsu jarraitzen duela euskal gizaratean. Ma-

nifestazioaren ajeak oraindik dirau, Itziar Ituño aktoreari eta Porrotx pailazoari atxikimendua agertzeagatik konponbidearen etsaiek gauzatu duten difamazio kanpaina publikoek erakusten duten bezala.

Momentu honetan Deustun bi preso ditugu: Jon Mirena Sanpedro eta Juankar Iglesias. Zoritxarrez, beraiek ere beraien larruazaletan bizi dituzte salbuespenezko politika horiek. Jon Mirenak 28 urte daramatza kartzelan. Frantziako kondenak ez batzearen ondorioak pairatzen ditu. Frantzian betetako 6 urteak kontuan hartu izan balitzaizkio, aske egongo zen. Juankarrek 24 urte daramatza kartzelan. Legedi arrunta aplikatuz gero, Juankarrek 3. graduan egon beharko zuen 2017tik.

Euskal Herrian biderkatu egin dira azkenengo hilabeteetan presoan eskubideen aldeko ekimenak. Deustu ez da salbuespena. Deustuko Sarek Jon Mirena eta Juankarren etxeratzea eskatzeko eta salbuespen neurriekin behingoz bukatzeko asmoz dinamika iraunkor berri bat abian jarri du aurten, “DEUSTUKO LEHEN OSTIRALAK” dinamika, hain zuzen. Hilabeteko lehen ostiralean, 19:30etan, kontzentrazio bat egingo dugu San Pedro plazan. Asko izan gara hitzordu honetara kale egin ez dugunak. Baina gehiago izan behar gara. Prest!-eko irakurleei konponbiderako giltzak izateko gonbidapena luzatzen dizuegu. Hurrengo hitzordua: otsailak 2an. EUSKAL PRESOK ETXERA. JUANKAR ETA JON MIRENA ETXERA.





# berbetan

BEGOÑA ITURRIZArekin

SANTUTXUKO BERTSO ESKOLAKO PARTAIDE OHIA

*“Bertsolaritza aldatu da*

*Begoña Iturrizak ibilbide luzea egin du Bilboko eta Bizkaiko bertsolaritzaren zein euskalgintzaren alde. Joan den abenduaren 16an, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren irabazleari, Nerea Ibarzabali, txapela janzteko ohorea eman zion Bertsozale Elkarteak. Egun Deustualdeko Berbalagun Mintzapraktika taldeko kidea da.*



## *gizartea aldatu den bezala”*

### **Bilbao Arenan Nerea Ibarzabali txapela jantzi ostean, bertsoa bota zenuen. Nola bizi izan zenuen une hori?**

Poztasun handiz. Hala ere, kontziente nintzen oso erantzukizun handia zela, horrenbeste jenderen aurrean txapela ipintzea bera eta bertsoa kantatzea. Bertso eskolan ibili naizenez, jende askok ezagutzen nau bertso munduaren barnean. Beraz, txapela ipintzeko proposamena jaso nuenean, behartuta sentitu nintzen, nolabait esanda, zerbait kantatzera. Behin finala pasa eta gero, esango nuke ondo atera zela, bai finala bera eta baita txapelketa osoa ere.

### **Bizkaiko Bertsozale Elkarteak haren sorreran eta ondorengo ibilbide luze zein oparoan parte hartu zenutenei eskerrak eman nahi izan zuen aitortza horren birtatez. Izan ere, Elkarteak aurten 40 urte betetzen ditu. Zer eman du horrenbeste urteko ibilbideak?**

Zuk esan bezala, 40 urte pasa dira. Elkartea premia bat zegoelako sortu zen. Bertsolaritza geroz eta indar gehiago hartzen ari zen. Indarrak bateratu egin behar ziren zetozen eskakizunei erantzun ahal izateko. Alde batetik, bertso eskola asko sortu ziren 1980tik aurrera eta hor azpiegitura bat beharrezkoa zen, besteak beste: Algortan, Durangon, Markinan... harreman handia egon zen eta apurka apurka premia handiagoa soma-

tzen genuen. Horregatik, testuinguru horretan Elkartea egitea pentsatu genuen. Garai horietan guk egiten genuen dena, militantzia asko zegoen. Ez zenekien zer etorriko zen gero. Hala, etorri ahala egiten genituen sortzen ziren lanak.

### **Zerk eraman zintuen bertso munduan sartzera?**

Nire kasuan, bertsozale egin nintzen euskara berreskuratzearekin batera. Ni Bergaran jaiotakoa naiz, baina Bilbon bizi izan naiz beti. Alegia, etxean ama euskalduna izan eta euskaraz txikitatik ikasi arren, Bilbo bezalako ingurugiro erdaldun batean galdu, ahaztu egin nuen. Gero, 16-17 urterekin, berriro euskara ikasteko klaseetara joatea erabaki nuen. Euskaltzaindian hasi nintzen eta buru belarri jarri nintzen euskara ikasten. Edozelan ere, momentu horretan ez nekien ikasketa horiek nora eramango ninduten. Hain zuzen ere, gerora ikastolara sartu nintzen lanean. Bertsoari dagokionez, euskara hobetzeko, hobeto ezagutzeko asmoz zaletu nintzen. Irakurri egiten nuen bereziki, garai haietan ez zegoelako horrenbeste bertso saiorik. Geroago, 60. hamarkadan, gutxi gora behera, Bizkaia irratian ematen zuten saioa entzuten nuen. Alde horretatik, 1980an Xabier Amurizak irabazi zuen txapela azpimarratuko nuke interes horren pizgarri bezala.

**“Bertsoari dagokionez, euskara hobetzeko, hobeto ezagutzeko asmoz zaletu nintzen”**



# berbetan

BEGOÑA ITURRIZArekin

## ▷ ▷ SAKONEAN

*“Izugarrizko ohorea izan zen joan den abenduaren 16koa”*

**Gaur egun, nola deskribatuko zenuke bertsolaritzarekin duzun harremana?**

Bertso saioretara joaten naiz. Azken txapelketara joan egin naiz, esaterako. Kuadrillatxo bat gara; etxean geratu ordez, elkarri animatu eta joan egiten gara. Bestalde, publikatzen dena ere irakurri ohi dut. Baina handik harago ez dut bestelako konpromezurik gaur egun, ezta nahi ere. Dagoeneko egin dut egin beharreko guztia. Bertsoa zaletasun hutsetik bizi dut.

**Zein izan zen txapela jantzeko proposamenak eragin zizun lehen sentsazioa?**

Nolabaiteko zorabioa ez dakit. Ez nintzen kokatzen. Baiezkoa eman nuen, hala egiteko arrazoiak neuzkalako. Hala ere, ez nintzen izan horrek zekarren guztiaren kontziente. Hainbat kezka sortu zizkidan: bertsoa egitea, zer egin bertsoa kanatzerakoan gelditzen banaiz, hainbeste jenderen aurrean kanta-tzeak eragiten zidan beldurra... Finala baino ia hilabete lehenago proposatu zidaten. Beraz, denbora izan nuen asumitzeko eta eskatutakoa egiteko gai nintzela ulertzeko. Izugarrizko ohorea izan zen joan den abenduaren 16koa eta pozik nago ondo irten zelako. Edozelan ere, ez nuen espero prentsak egin duen jarraipena.



**80. Hamarkadako oroitzapenetik abiatuta, nola uste duzu aldatu dela bertsolaritza?**

Izugarri aldatu da, baina bertsolaritza aldatu da gizartea aldatu den bezala. Alegia, ez dago konparatzerik 1980eko euskal gizartea oraingoarekin. 180 graduko aldaketa bizi izan du. Erlijioak ez du lehen zuen pisua, politikoki ere une oso gogorrek bizi izan dira. Emakumeak ere oholtzara iritsi dira eta horrek iraultza handia suposatu du. Ateak itxita izan dituzte, ez inork itxi dizkielako, gizartea bera itxia zelako baizik, gizonezkoena zen. Oso garrantzitsua da hori, ikasten ari diren neskek badaukatelako jada lur bat sustraiak non jarri. Era horretan, emakumeak kantatzera ez ezik, ahal-duntzera ere iritsi dira. Emakumeek lan kolektibo handia egin dute plazan egoteko, egoten ikasteko eta horrek aldakuntza handia ekarri dio bertsolaritzari. Horretaz gain, diskurtsoak ere aldatu egin dira eta hori gizonei ere badagokie.

**“Arnas anitzez osa dezagun biharko bertsolaritza”. Hala zenion txapela emateko uanean botatako bertsoan. Gauza asko aldatu badira ere, zer geratzen da, zure iritzi, aldatzeko?**

Emakumeen lana normalizatzea esango nuke. Nik uste normalizatuta dagoela, ez kopuruan, oraindik gutxiago dira



gizonezkoak emakumeak baino, baina badago feminismotik datorren diskurtso bat, emakumeen ahalduntzea helburu izanda, lan teoriko handia izan duena. Beraz, zure galderari erantzunez, bertsoan bertan esan nahi nuena: biharko bertsolaritza izan dadila orekatua eta mundu guztiak parte hartu ahal izango duen tokia.

**Bilbon bertsolaritzak eman dituen aurrerapauso nabarmenenak gertutik bizi dituzu, bestek beste, Santutxuko bertso eskolaren sorrera. Zer nolako arazo edo erronka izan zenituzten proiektua aurrera eramateko?**

Bertsotan ikastea eta, gero, irakastea. Talde bat ginen, nik ez dut beste inork baino gehiago edo gutxiago egin. Bilbon egiten diren bertso saioak ordutik hona antolatzen dira, 40 urte pasa diren arren. Beraz, hutsetik ohitura bat sortzea garrantzitsua izan da. Horretaz gain, elkarlanean egon gara beste eskolekin. Zerrenda bat egin beharrean, erronkak etorri ahal egon gara horiei aurre egiten.

**Euskara etxean ikasi bazenuen ere, nerabera garaira iristerako asko galdu zenuela aipatu duzu. Nolakoa izan zen, beraz, egoera horretatik Bilboko euskalgintzan eta bertsolaritzan aritzeko prozesua?**

Esan bezala, 16-17 urterekin hasi nintzen berrikasten. Bolada bat Madrilen egin nuen eta bertatik apur bat kontzientzia gehiago hartuta itzuli nintzen euskara ikasteko. Askotan gauzak kasualidadez iristen dira. Euskaltzaindiak antolatutako ikastaro batean sartu nintzen, lagun berriak egin nituen eta haiekin batera inguru euskaltzaleak ezagutu nituen: dantza taldeak, koroak... Gogoan dut orduan San Antongo mezetara joaten ginela eta bertan Don Claudio apaiza zebilen, oso euskaltzalea zena. Nik ezagutu dudan meetinglaririk onena Euskal Herrian. Dena den, euskaldun gutxi ginenez leku guztietatik arrapatzen gintuzten: katekesia euskaraz emateko, esaterako. Hala, konturatu gabe Portugaleteko Ikastolan sartu nintzen 1967an. Era horretan, pixkanaka mundu euskaldun batean sartu nintzen.

**Etorkizunera begira, zeintzuk dira euskarak eta bertsolaritzak dituzten erronka nagusiak?**

Euskararena hitz egitea dela esango nuke, eta ondo hitz egiten bada hobeto. Geroz eta hitzun gehiago izatea eta jendeak ohitura har dezan euskaraz hitz egiteko. Orain ikusten da irakaskuntza euskalduna hartzen dutela oso eskasa, hain errez dugu dena non ez dugun baloratzen daukagunea, gauzak instituzionalizatu egin direnetik. Finean, nahi nuke Euskal Herria euskalduna izatea. Bertsolaritzaren kasuan, ordea, ez dakit. Ikusi dugu nola aldatu den 40 urtetan, beraz, beste 40 urte barru, gizartearen ispilua izango da. Euskalduna eta arrazoiak badaude biziko dela pentsatzeko.



**“Biharko bertsolaritza izan dadila orekatua eta mundu guztiak parte hartu ahal izango duen tokia”**



KIROLA

## “Ipar Martxa” ikastaroa Deustualdean

Berbaizu Euskara Elkarteak antolatuta, otsailaren 7an “Nordic Walking” edo “Ipar Martxa” euskaraz egiteko ikastaroa eramango da aurrera Deustun. Kirol honi buruz jakin behar dena zera da: Ibilketa nordikoa eskian erabili ohi diren antzeko makilen laguntzaz oinez eta aire librean burutzen den kirol bat dela. Edozelan ere, ekitaldiaren xedea kirol honetan aritzeko oinarritzko ezzagutzak jasotzea izango da. Horretaz gain, ekimenak parte-hartzaileek euskara ardatz izatea bultzatu nahi du. Ikastaroa 18:30ean izango da euskalduna zubipean. Azkenik, izen-emateko epea otsailaren 5era arte egongo zabalik; interesa duenak honako estekaren bitartez eman ahaliko du izena: <https://labur.eus/JTU2A>.



KIROLA

## Deustuar bat Athleticen abenduko enbaxadore

Joan den 2023an Athleticek 125 urte bete zituen eta hilabete bakoitzeko futbol taldearen enbaxadore bat izendatu zuen. Bada, urte bereziari behar bezalako amaiera emateko, abenduko enbaxadorearen bitartez, talde zurigorriak bere bazkideak omendu nahi izan zituen. Horretarako, Athleticek egun dituen 43.612 bazkideen artean izen-ematea ireki zuen enbaxadore izendatzeko zozketan parte hartzeko. Gauzak horrela, Migel Isasi deustuarra suertatu zen hautatua. Homenaldia zurigorriek Atletico Madrilen aurka joan den abenduaren 16an jokatu zen partiduan eraman zen aurrera. “Apur bat beldurtuta irten nintzen zelaira; azken batean, 48.000 pertsona nituen niri begira. Saiatu nintzen kapitainari (Iker Muniain) begiratzen, eta, gero, zelaia erdigunean Iribarrekin egon nintzen. Ohore bat izan zen zaleak ordezkatu ahal izatea” adierazi du Isasik.



KIROLA

## Handitze-lanak Deustuko Arraun Taldearen egoitzan

San Inazioko arraun-pabiloia Deustu Arraun Taldeko egoitza da. Bada, joan den urtarriaren 16an bukatu zituzten egoitzaren handitze-lanak. Hauek Zarandoa etorbiderantz ematen duen beheko solairuan egin dira, zabalik utzita etorkizunean eraikina handitzen jarraitzeko aukera. Orotara, eraikinari 420 metro koadroko azalera gehitu diote handitze-lanek. 1,2 milioi euroko aurrekontua izan dute lanek, eta haiei esker, arraun pabiloia azalera %17 handitu da gimnasioa, % 63, eta aldagelen espazioa bikoiztu egin da. Lan hauek taldeak azken urteetan bizi izan duen hazkundeari erantzuten diete. Izan ere, 2018an pabiloia inauguratu zenetik, fitxen kopurua handitu egin da, 98 lizentzia izatetik (74 gizezkoen kategorian eta 24 emakumezkoen) 150 lizentzia izatera (90 gizezkoetan eta 60 emakumezkoetan).




FEMINISMOA

## “Erasorik ez, erantzunik gabe!”

Ez zen urtea ondo agurtzeko aukerarik izan barrutian jazotakoarekin. Pasa den hilean, gau giroan, bi mutilek, auzoko neska\* gazte bat erasotu zuten, sumisio kimioa erabilia. PAREK, Deustuko Gazte Talde Feministak, gertaera salatu eta erasotuari babes osoa helarazteko deialdia egin zuen, abenduaren 31n Done Petri enparantzan. “Emakumeok, emakume izate hutsagatik pairatzen ditugun biolentzien adierazpenik agerikoena da jasotakoa.” Gertatutakoa ez da kasu isolatua, egungo errealitate gordin eta bortitzaren islada dela argi adierazi zuten. Horrekin batera, errelatoa bera zalantzan jartzeko ahaleginen aurrean ozen aldarrikatu zuten: “Guk sinesten zaitugu! Eta eraso ororen aurrean indarrez eta kolektiboki erantzungo dugu”. Gaur gaurkoz, kasua bide judizialek eramaten ari da.





Urtea: 1937

## *Deustuko Zubia*

Txema Luzuriaga

Zubi honen ezaugarri nagusia egitura altxagarria da, gerraosteko garaian eta baita hurrengo urteetan ere (70eko hamarkadaren amaiera arte) altxatzea ohikoa zena. Lan horretarako, mekanismoa martxan jartzeaz arduratzen zen makinista oinezkoentzako espaloiko garita batean zegoen, zubiaren azpitik igaro nahi zuten itsasontzien hiru sirena-ukituak entzun ondoren zubia irekitzea zegokiona. Ez zen arraroa zubia egun berean dozena bat aldiz baino gehiagotan irekitzea, eta, beraz, askotan ibilgailuen trafikoari kalte handia egiten zitzaion.

Hala ere, Deustu eta Bilbo arteko lotune hori irekitzeak Bilboko hedapen- eta hazkunde-eremu bihurtu zuen elizate tomatero zaharra. Alde horretatik, zenbait faktorek Deustu erabat urbanizatuta dagoen eta bere nekazaritza-iraganetik urrun dagoen eremu bihurtu dute pixkanaka, mendiaren eta portuaren artean (Erribera auzoa) dauden baserriak oraindik ere izan arren, besteak beste: Jesuiten Unibertsitateak duen zubiarekiko gertutasuna, gerraosteko urteetan iritsitako biztanle

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

# YVES ROCHER

FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



## ATXURI TABERNA

Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

Iragar zaitez

**Prest!**-en

tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso  
Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com

**Optica  
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24



**Urrunago zertarako?**  
Deustuko Liburutondoa  
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

**Tintorería  
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
euskara zerbitzua

**Probatu herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
aek ■ euskaltea

Matrikula zaitez! **aek**

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
HORTZ KLINIKA

**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

**Bitxidenda**

**Sabin**  
Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
CERRAMIENTOS

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia

**PADI**  
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97



## Zer da inauteri garaietatik gehien gustuko duzuna?



**Jon  
Deustu**

Inauterien hasierak negua bukatzeko gutxiago falta dela dakar, eta horrekin egun luzeago eta argiagoak datoz.



**Libe  
Deustu**

Kaleak kolorez, musikaz eta dantzaz beterik ikustea. Tos-tada sasoiak ere izaten da...



**Idoia  
Atxuri**

Egia esan, nahiz eta gehiegitan mozorro iraingarriak egoten diren, gero eta gutxiago izaten dira. Eta benetan polita da kaleak musikaz, kolorez eta adin ezberdineko jendea beteta ikustea.



**Egoitz  
Deustu**

Deustuko sektore eta adin desberdinetako jendeak parte hartzen duela.



**Andoni  
Deustu**

Deustuko inauterien igandeko desfilea duda barik. Bertan, adin, zonalde eta kondizio ezberdinetako jendea batu eta herria egiten delako.



**Mainer  
Ezkerraldea**

Gehien gustatzen zaidana da besteen mozorroak ikustea eta jendearen irudimenarekin flipatzea. Niri ere asko gustatzen zait mozorrotzea.



# harkua bete herria

>> IRAKURLEEN TXOKOA

## BEKATUA HIZPIDE

Testua: Berbaizu Euskara Elkartea



Urteko lehen Irakurleen Txokoa izan genuen joan den urtarrilaren 17an. Aurreko edizioan egin genuen bezala, oraingoan ere, Mullerrenea espazioan bildu ginen irakurzaleok. Asteazken hartan eguraldi ona egiten zuen arren, kanpoan bero eta barruan hotz egiten zuen. Edozelan ere, ekimen honek muinean duen literaturarekiko interesak bultzatuta, borobilean eseri ginen eta elkarren ondoan goxo-goxo igaro genuen arratsaldea.

Oraingoan, Goiatz Labandibar euskal idazlea izan genuen gurean, joan den urtean kaleratu zuen “Bekatua” eleberrri laburrari buruz hizketan. 36 urteko Garazi izeneko emakume baten krisi existenzialari buruz solasean aritu ginen. Hasteko, izenburuaren harira hasi ginen hizketan. Gogoeta batzuk behin baino gehiagotan agertu ziren: zer da bekatua, gaur egungo gazteentzako? Laikotasunean hazi eta hezitako belaunaldiek ba al dakite zer den? Bekatua da ala ez...biko-

tea izanda nabarmenki gazteagoa den pertsona batekin oheratzea, liburuaren protagonista bezala? Mullerren ginenok ez ginen gai izan gure gaur egungo gazteen izenean mintzatzeko, ezta idazlea ere.

Gertakari batetik hasita barne-eztabaida hasten duen emakume baten egoera azaldu nahi izan du idazleak liburuan. Labandibarrek berak onartu zigunez, hasiera batetik oso argi zuen nola amaitu nahi zuen liburua, irakurleari bere ondorioak ateratzeko aukera eskainiz. Alegia, idazle oartzuarak ez zion istorioari amaiera itxirik eman nahi, norberak bere interpretazioari eraginez amaiera hori osa zezala baizik.


Autorearen ibilbideari dagokionez, “Biharamuna” izenburuarekin irabazi zuen 2021ean Ramiro Pinilla Getxoko saria, eta, beste zenbait gauzen artean, horretaz aritu ginen. Azken finean, hori baita eleberrian kontatzen dena, biharamun bat: ajea, buruhaustea, damua, kulpa, buruko mina... Sentimendu eta egoera horietatik guztietatik igarotzen da Garazi protagonista, eta hari horiei tiraka Goiatz Labandibarrek lortu du adin-tarte baten buruhauste, etorkizunarekiko ikuspegia gizartearengandik jasotako presio eta harremantzeko moldeak plazaratzea.

Garazik bizitzan hartutako erabakiak epaitzen ditu bere baitarako, eta irakurleoi ere gonbidapena luzatzen digu, inguratzen gaituztenok eta gure buruarekin daukagun harremana berrius dezagun. Ziurrenik, hobe biharamun baten ez bada, baina hori norberaren esku.

# BILBO KALLING

Lander Belaustegui\*

Rostoi erraldi  
bat jan dut gabonetan.  
Baina oraindik  
gosez hiltzen  
nabil. Sabelean  
Zulo bat  
izango banu  
bezala.





## NEGUKO SOLSTIZIOA, ZAHARRA BERRI

*Tradizioz jositako garaia da negua, urteko azken asteak hurbiltzen diren heinean, urteroko ohitura eta errituak berreskuratzen ditugu: zuhaitza eskegi, lagun eta familiaz inguraturik bazkari eta afari amaiezinak... Bada, Deustun, ordea, duela zenbait urtetatik tradizio berri bat (akaso hala deitu ahal bagenio), Gabon ospakizunen izaera kristauaren aurreko ospakizunei eutsi dielako Deustuko Jai Batzordeak urteroko zita hau sortzeko.*

Testua: Xabier Badiola



Aurten, beraz, urtero lez, abenduaren 24an ospatu zen Deustun Neguko Solstizioa. Goizean hasi zen festa Done Petri plazan umeentzako tailerrekin, Txantxiku, Egunsentia eta Gazte Alai aisialdi taldeetako kideen eskutik. Itzela sorpresa txikiak hartu zutena Olentzero eta Mari Domingi bertaratu zirenean! Bitartean, Iruña kaletik Bihotz Alai dantza taldeak kaleak girotu zituen dantza kalejiran, eguerdiko 12:30ak inguruan; jendea animatzen hasi zen musikak eta eguraldi onak bultzatuta, eta

jendetza bildu zen Done Petri plazan zein inguruko tabernetan. Urtero izan ohi da eguraldi ona goizean, eta aurten ere, zero urdina tarteko, goiz atseginaz gozatu zuten bertaratu zirenek.

Arratsaldeko bostetan jarraitu zuen festak, ez aurretik Jai Batzordeko kideek prestakuntza lanak egin gabe: Olentzero eta Mari Domingiren panpinak plazara jaitsi, sua pizteko zuziak prest utzi eta kantutegiak paperera pasa zituzten, dena gertu

### KOMEDIA MADARIKATUA DIVINA TRAGEDIA

OTSAILAREN 16tik 25era

Dramaturgia  
TOMÁS AFAN MUÑOZ  
Zuzendaritza  
SAIOA IRIBARREN MUÑOZ

Antzezleak  
SILVIA LARRAURI DE MIGUEL,  
LUIX MITXELENA MITXELENA,  
ANDREA MORA AHEDO, UXUE FUERTES VECA,  
ZIGGY DOCHERTY SÁNCHEZ,  
AITZOL VILLAHOZ PRIETO

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)



**P6**  
MILITARRIA  
COMPARTIA 2008



arrasaldeko egitaraurako. Bostak pasatxo hasi zen jendea hurbiltzen; eskuz-esku banatu ziren kantutegiak, txistulariak ere agertzen joan ziren pixkanaka eta behin denak prest zirela hasi ziren kantuan. Kalejira hasi aurretik hiruzpalau doinu abestu zituzten. Jai Batzordeko kideak kantutegia “modernizatzen” ari dira urtez urte. Aurten, izan ziren kantu tradizionalak, Mari Domingiren abestiaren bertsio desberdin bat, ez hain tradizionala baina oso hunkigarria Hertzainaken 564 mitikoa,... “bagoaz apurka kantutegia moldatzen, lehengo kantak galdu gabe”, adierazi zuten antolatzaileek.

Eztarriak berotu ostean oinak ere berotzeko garaia iritsi zen, eta Olentzero eta Mari Domingi sorbaldan hartuta, kalean behera ekin zion kalejirak, txistularien doinuak girotuta. Urteroko ibilbidea jarraituz, poliki poliki joan zen handitzen jende saldoa, antolatzaileen hitzetan “urtez-urte errepikatzen dugunez, auzokideak ibilbidea eta kalejira pasatzean batzen dira festara”. Berriz, Done Petri plazan, iritsi zen sua pizteko garaia.

Aspaldiko garaietan Neguko Solstizioan eguzki zaharren heriotza eta udaberrian berotuko gaituen eguzkiaren jaiotza ospatzeko egiten zen sua, eguzki jaio berria gurtzeko, urteko gaurik luze eta ilunenean. Suaren erritua berreskuratu du, bada, Deustuko Jai Batzordeak, aldaketa garrantzitsu batekin oraingoan, hori bai; aurreko urteetan Olentzero eta Mari Domingiren panpinak erre izan dituzte, aurtengoan, ordea, suak ez zituen gauaren protagonistak eraman, eta festak aurrera jarraitu zuen. Erromeriak girotu zuen plaza eta bertaratu zirenek izan zuten eztarria nola berotu, kantuan batzuk, txokolatadarekin txikiek, eta inguruko tabernetan helduek, afaltzera joateko ordua iritsi zen arte.

Urteak joan eta urteak etorri, Neguko Solstizioa abenduko ospakizun ohikoa bihurtu da Deustun. Euskal kultura eta folklorea berreskuratu eta modernizatzea lortu du Deustuko Jai Batzordeak, eta auzotarrek besoak zabalik ematen diete ongi etorria ospakizunari urtero, eta ez dira soilik haurrekin doazen familiak bertaratzen, kuadrila gazteek ere parte hartzen dute urtero. Aurtengo Neguko Solstizioan ere zeru urdina eta baserritar jantziak ikusi ahal izan genituen nonahi, jada auzokideen artean tradizio bihurtu dena baita ere, eta egun atsegina eta dibertigarria izan zen adin guztietako parte-hartzaileentzat. Datorren urtean ere bilduko ditu auzokideak Deustuko Jai Batzordeak antzinako erritu eta ospakizunak berri egin, joan den eguzkiari agur esan eta berriari ongi etorria emateko, kantuan, dantzan eta esker onez; datorren urteko festan ere eguraldiak lagunduko duen ezin jakin, errituak erritu beti naturak baitu azken hitza.





# harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

## SIBO-A: TIKTOK-EKO ERREGIAREN NAN-A

Testua: Ainhoa Maiztegi

Duela bost urte sigla ezezaguna zena, gaur egun, TikTok-en milioika bideoren protagonista nagusia bihurtu da. Halakoa izan da alterazio digestibo honek izan duen booma, non ematen dugun pauso bakoitzeko, asaldura horri amaiera emateko gai direla dioten produktu miragarrien eta tratamendu ez-konbentzionalen publizitatea aurkitzen dugun. Egia ala negozio hutsa? Ikus dezagun zer dagoen pil-pilean dagoen tematika honen atzean.

SIBO-a (ingelesezko sigletatik eratorria) heste-meharrean emandako gehiegizko karga bakteriaroari deritzo.

Bakterioen inguruan mintzatzen garenean, maiz, bakterioei “on” edo “txar” etiketak esleitzen dizkiegu mikroorganismo horiei. Baina, SIBO-a bakterio onuragarri edo gatzen presentziarekin loturik egon ez ezik, bakterio horien hazkuntzarekin, kokapenarekin eta ugalkortasunarekin ere dago erlazionatuta.

Digestio-hodiak baldintza egokietan lan egiten duenean, bakterio hauek heste lodian bizi eta lan egiten dute. Aldiz, egoeraren batek digestio-hodiaren bakea hausten duenean, bakterio hauek hestetik gora igo eta heste-meharrera doaz bidaian. Txango horren ondorioz, besteak beste, karbohidratoen hartzidura burutu eta ondorioz, gasak sortzen dituzte.

Baina, nola heldu dira bakterio horiek egon behar ez luketen lekura? Tira, ba osasunaren arloan ematen diren gaitz gehienekin gertatzen den bezala, ez dago erantzun bakarra etiologia zein den jakiteko. Hau da, faktore anitzek sor dezakete ingurumen lagungarria SIBO-a garatzeko. Horien artean, mekanis-

mo eta egoera hauen alterazioak daude: heste-mugikortasuna (konplexu motor migratzailearen aktibazio eza, peristalsi baxua, ...), urdailaren azidotasuna (pH-a basiko bilakatzen denean arazoak datoz), sistema inmunea (asaldura inmuneekin erlazionaturik dago: zeliakia, fibrobialgia, hesteetako gaixotasun inflamatorioak, lupus, ...), sekrezio pankreatiko eta biliarrak (beharrezkoak dira digestio egokirako), barrera fisiko edota e-dukтура anatomikoak (bakterioen kolonizazioa gailentzen dute), besteak beste. Gainera, hainbat patologiarekin ere erlazionatzen da SIBO-a izateko probabilitatearen handiagotzea: obesitatea, psoriasis, hipotiroidismoa, diabetes, ... Beraz, multifaktorialia izan daiteke.

SIBO-aren sintomatologia digestiboaren artean honakoa topa dezakegu: gasak, distentsio abdominala, min abdominala, idorreria, beherakoak, goragaleak, azidotasuna. Baina, hamaika faktorek eragiten diotenez, manifestazio sistemikoak ere agertarazi ahal dira SIBO-aren ondorioz: loezina, nekea, buruko mina, inflamazio kronikoa, aknea, edota dermatitisa, alegia. Beti bezala, sintomatologiaren bat dugunean, sintoma desagertarazi ez ezik, sintoma horren atzean dagoen kausa identifikatzea ere jo behar dugu, asaldura horren errezidiba portzentaia oso altua baita.

Hori dela eta, anamnesi osoa jasotzea ezinbestekoa da pertsona bakoitzaren etiologia zein den jakiteko. Hori noski, SIBO kasu baten aurrean baldin bagaude. Izan ere, komentatu dugunez hainbeste faktoreren eragina egon ahal delako, eta sintomatologia ere askotan ez-zehatza izan datekeelako.

Behin kontsulta klinikotik pasa eta gero,





# harkua bete herba


adituak beharrezkoak diren frogak egitera bideratuko (edo ez) luke SIBO-a izan ahal duela susmatzen duen pertsona. Froga horien artean: odol analisiak (ohikoak dira B12 defizit eta folatoen gailentzea, besteak beste), gorotz analisiak (koprokultiboa, kalprotektina maila, ...), eta hats test-a (bakterioek sortutako hidrogeno eta metano mailak neurtzen dira) topa ditzakegu, adibidez.

Frogen emaitzek SIBO-an positiboak badira eta pertsona horren klinikan sintomatologia baldin badago, beharrezkoa izango da tratamendu bat aplikatzea. Horien artean honakoak daude: terapia farmakologikoa (antibiotikoak?), terapia dietetikoa (mugikortasun digestiboa landu, idorreria edo beherakoak tratatu, urdaileko pH azidoa berreskuratu...), probiotikoak (kontuz, bakterioen hazkuntza dago, beraz andui oso konkretua erabili behar da eta ez ohiko probiotiko komertzialak), etab.

Laburbilduz, aurretik aipatutako edota jasota ez dauden sintomak pairatzen badituzu, jo ikuspuntu integral batetik sintoma horien kausa zein den aztertuko duen profesional bategana. Galdetu une oro ulertzen ez dituzun kontzeptuak baita tratamendu bakoitzaren helburuak zeintzuk diren. Eta ez haserretu zeure bakterioekin, berez, eurek okupatzen duten espazioari erreparatuz, haiek dira zeure ostalari eta ez alderantziz. Beraz, zaindu euren ostatua, zaindu zeure tenplua ;)



**Ainhoa Maiztegi**

 @ainhoamaiztegi.nutricion



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**PATRI MUÑOZ**

*Script eta kulturzalea*

## MARKOS GIMENO VESGA

Literatura eta logika ariketak gustuko ditut. Nire interes hau, neurri handi batean, Carlo Frabetti matematikari, dibulgatzaile eta idazlearengandik datorkit. Berak urteetan zehar Raymond Smullyan eta antzeko autoreen berri eman dit.

Behin esan zidan arduratuta zegoela zientzia zehatzak eta literatura, eta bereziki poesia, zein urrun zeuden ikusita. Ez zituen adibide asko topatzen non disziplina horiek elkar ikutzen zutenik. Nik Sarrionandiaren *Ariketa matematikoa* olerkia aipatu nion, baita berarentzako itzulpen bat egin ere (Euskal Herriak barka nazala).

Badira urteak Deustuko lagun batek AZA edo A3A, erdiko Z hura 3 bat ere bazelako, izeneko liburuxka bat oparitu zidala. Euskarazko palindromoen liburu bat da eta liburuaren xedea palindromo bakoitza asmatzean datza. Hitzak eta zenbakiak dira horretarako pistak eta despisteak. Nik orduan ezagutu nuen Markos Gimeno Vesga, liburuaren egilea. Herri txiki honen paradoxa horietako bat. Hain txiki eta askotan hain ezezaguna.

Joseba Sarrionandiak eta Esteban Montoriok *Markos Gimenoaren 101 karteletarak* liburu argitaratu berri dute. Bertan Gimenoaren hainbat palindromo eta hauekin egindako kartel bana bildu dituzte. Gernikako Euskal Herria Museoa erakusketa egin dute ere. Liburu zein erakusketa Gimenoaren lana ezagutzeko edota berrikusteko aukera paregabeak dira. Bere palindromo batek dioten moduan: Azti hautatua: hitza.

*Doinua: Kontu berri bat suzedidu da*



**MADDI ARTETXE ETA JUNE  
SARRIONANDIA-IBARRA**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Inauteriak helduko dira  
Deustuko kaleetara.  
Guztiok mozorroak jantzita  
Dibertitu egingo gara.

Inauteriak euskaraz hobe  
Ospatzen baldin badira.  
Sortu ditzagun jai gozagarri  
Batzun guztion neurria.

# eidabe

ekimen kulturalak

[www.eidabe.com](http://www.eidabe.com)

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu



## eskatu eskaini euskaraz

### Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun  
hitzaren arabekoak izango  
direla zure harremanak?

**Bilbao**

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**e//**  
euskaraz  
BARRA // BARRA





DEUSTU · OTSAILAK 2-3-4

**\*Ekintza guztiak Done Petri plazatik hasi edo bertako txosnan izango dira.**

OTSAILAK 2  
**OSTIRALA**  
**1924-2024**  
**GALA 100**  
**URTE**

**18:00**  
**Buruarinak**  
**Matxintxu Euskaltegian**  
*Izen emateko darabilbo.eus*

**19:30**  
**Poteoa txosnan**

**20:00**  
**Txupinazoa**

**20:30**  
**Kuadrillen arteko**  
**Hi Selfi jolasa**

**22:00**  
**Kuadrillen arteko**  
**jolasak txosnan**  
**eta Dj HMNDK etxera**

OTSAILAK 3  
**LARUNBATA**

**12:00**  
**Lantzeko inauteriak**

**15:00**  
**Herri bazkaria**  
*5€. Bonoak salgai: Oskarbi, Bordatxo,  
Bolibar eta Deustuko Herriko Taberna.  
Bonoak erosteko azken eguna: urtarrilak 30*

**16:30**  
**Bingo musikatua**

**16:00-18:00**  
**Puzgarriak**  
*\*Konfirmatzeke*

**18:00**  
**Orkresta elektrotuna**  
**elektrotxaranga**

**18:00**  
**Umeentzako**  
**Hi haiz hi artista lehiaketa**

**20:30**  
**Euskal dantzen erromeria**

**22:30**  
**Berriztu erromeria**

OTSAILAK 4  
**IGANDEA**

**11:30**  
**Desfilean izen ematea**  
San Felizisimon

**12:00**  
**Desfile nagusia eta ostein**  
**sari banaketa.**

- Sariak:
- Banakako mozorrorik onena
  - Karrozarik onena
  - Talde mozorrorik onena
  - "Mozorroto" komertzioen arteko lehiaketaren saria, dekorazio onenari
  - Tabernen arteko koktel txapelketaren saria
  - Eskolen arteko marrazki lehiaketaren saria
  - "Juanjo Mendibil" animazio sari berezia
  - Deustu Bizirik sari berezia

**12:30**  
**Txosna zabalik,**  
**pintxo eta guzti!**

**14:00**  
**De Tomeitos**  
**kontzertua**

**19:00**  
**Agate Deuna**

